



Usurbilgo Udala

2021EKO EKAINAREN 24EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Ainhoa Arrozpide Landa
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Kontuhartzailea: Xabier Olano Jauregi.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2021eko ekainaren 24ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

***2021/01/25EKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA.**

2021eko urtarrilaren 25eko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu da.

***2021/02/25EKO OHIKO BILKURAKO AKTA.**

2021eko otsailaren 25eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu da.



Usurbilgo Udala

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO MAIATZAREN 24TIK EKAINAREN 18RA (2021/450-2021/544).

Alkatetzak 2021eko maitzaren 24tik ekainaren 18ra bitartean (2021/450-2021/544) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2021EKO 1. KREDITU GAIKUNTZA ONARTZEA.

Lur Etxeberriak hartu du hitza puntu honi buruzko azalpenak emateko.

Ogasun batzordean landu eta diktaminatuta datorrela esan du.

Jarraitu du esanez 2021ean ezohiko diru-sarrera batzuk izan direla, guztira 207.000 euro. Hauek izan direla dio, batetik, 157.318ko diru-sarrera BEZagatik (Atallukoa), 13.055 euro Covid-19 ezohiko funtsa eta azkenik 36.627 euro hirilurren balio gehitzeagatik.

Aipatutako diru-sarrerak bideratzea proposatzen dutela dio, batetik, 189.000 euro inbertsioetara (hondeamakina, Haraneko harmailak, kiroldegirako elebadorea) eta bestetik 18.000 euro transferentzia arruntetara, zehazki, sagardoaren kulturaren ikerketa antropologiko bat aurrera emateko.

Josune Urkolak hitza hartu du eta egin duten banaketaren inguruko beraien iritzia azaldu du. Haranek daukan arazoa konpontzeko egiten den proposamena ez zaiela nahikoa iruditzen esan du. Bideratu diren 13.000 euro horiek denboraldi hasierarako Covida zela-eta agian balio zezakeela, baina orain iruditzen zaie arazoa potoloagoa dela eta behin betikoa izan beharko litzatekeela.

Bestalde, hondeamakina berri bat erostera bideratzen den dirua ez zaiela bidezkoa iruditzen esan du, izan ere horrelako inbertsio bati etekina ateratzeko ahalik eta ordu gehien lanean aritu behar den makina bat da eta hori ez da Usurbilgo Udalaren kasua beraien iritziz. Beraien ustez diru horri erabilera eraginkorragoa eta probetxugarriagoa eman beharko litzaioke, esate baterako Etxealdiako irisgarritasuna hobetzeko prozesua martxan jartzea.

Beñat Larrañagak adierazi du harmailen inguruan esan duena ez duela oso ondo ulertu.

Josune Urkolak esan du Haranen dagoen arazoa 13.000 euroekin ez dela konpontzen.

Beñat Larrañagak esan du ez dakiela non dagoen arazoa ze jarriko diren harmailak ez dira behin behinekoak baizik eta behin betikoak izango direla azpimarratu du. Buruz ari dela dio baina 190 pertsona inguru jasotzeko harmailak izango direla gaineratu du.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak galdetu dio ea estaliak izango diren eta Beñat Larrañagak erantzun dio denak ezetz.

Beñat Larrañagak jarraitu du esanez Haranen arazo bat dagoela esateko Haraneko funtzionamendua eta errealitatea ezagutu egin behar direla. Bestalde, soluzio hau klubarekin kontrastatu eta adostutako irtenbidea dela eta haien onespenearekin aurrera doazela esan du.

Futbol zelai honentzat soluziorik onena ez dela izango esan du baina honen zergatia azaldu du, bere garaian nola eraiki zenagatik. Pentsatzen du bere garaian oso inbertsio handia zelako eta baliatuz aldagela zaharrak gaur egunean dauden lekuan zeudela, zelaiaren eta aldagelen kokalekua horretan oinarritu zela. Aurreko instalakuntzarik egon ez balitz eta obrak zerotik hasi izan balira, ziurrenik aldagelak beste leku batetan kokatuko liratekeela uste du, haizea dagoenean euria handik sartzen baita. Beraz, orain hartzen dituzten erabakiak dagoenaren gainean hartu ditzazketela azpimarratu du.

Alkateak adierazi du azpimarratu beharrekoa dela klubarekin adostutako irtenbide bat izan dela eta harrigarria egiten zaiola esan du klubarekin adostutako irtenbidea izanda kontra bozkatzea. Tamalez dirurik ez dute eta, ondorioz, diruaren erabilera egoki eta eraginkor bat eginez planteatu den inbertsio bat dela esan du.

Josune Urkolak esan du beraiei harrigarria egiten zaiena dela 207.000 euro sartuko direla udaletxean eta horren %82a hondeamakina erosteko izango dela.

Lur Etxeberriak adierazi du aurreko urteko aurrekontuetan hondeamakinaren partida sartu zutela eta zutela ezer aipatu. Ez dela gauza berri bat, aurretik brigadarekin adostuta zuten gai bat dela gaineratu du.

Orain dagoen hondeamakinak 27 urte dauzkala esan du, brigadakoek erabiltzen dutela dio lorazaintzarako, kultur ekitaldietarako, igeltseritza lanetan laguntzeko, iturgintzarako. Legealdi honen hasieratik eta aurreko legealdian baita, brigadak zerbait eskatzen baldin badu da hondeamakina. Bere burua ondo amortizatuta daukala uste du.

Alkateak gaineratu du udal honen apustua dela brigada, herrilan gehienak baliabide propioekin egiten direla, udal brigadarekin, eta herrilan guzti horiek aurrera eramateko brigadak makinaria behar duela azpimarratu du.

Batzarkideek, Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“2021-KALD-000004-00
Kreditu gaikuntza



Usurbilgo Udala

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena eta ziurtagiria aztertu dira. Bertan adierazten da aipatutako espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Ogasuneko Batzorde Informatiboak, 2021eko ekainaren 15an egindako bilkuran, gehiengo onartutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	18.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	189.000,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		207.000,00

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
1 (SARRERAK)	ZUZENEKO ZERGAK	36.627,00
3 (SARRERAK)	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	157.318,00
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	13.055,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		207.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Kontrako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, gehiengo onartu dute.



Usurbilgo Udala

4.- DONOSTIA-BIDASOAKO LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA BEHEMENDI USURBILGO UDALAREN BEREZKO BALIABIDE IZENDATZEA.

Alkateak azaldu du puntu hau Ingurumen eta Nekazaritza batzordetik diktaminatuta datorrela. Jarraian diktamenean jasotzen diren aurrekariak aipatu ditu.

Idazkariak adierazi du ia udal gehienek onartuta daukatela Behemendi udalaren berezko baliabide izendatzea.

Batzarkideek, Nekazaritza eta Ingurumen batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.06/2021-0203

Behemendi Landa Garapen elkarte bat da, 1992 urteko azaroaren 23an eratu zena. Elkartea 1993ko maiatzaren 20ean inskribatu zen irabazi asmorik gabeko Elkarteen Erregistroan.

Elkartean partaide diren erakundeak hauek dira: 13 udaletxe (Andoain, Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta, Usurbil) eta beste hainbat erakunde. Guztira, 26 kide.

Elkartearen xede nagusia hau da: nekazari eta abeltzainen produktuen ekoizle eta industria, nekazal-turismo arloko profesionalak eta udal erakunde arteko partaidetza eta lankidetzaren bideratzea, Donostia-Bidasoa bailarako landa garapena ekintzak gauzatzeko. Estatutuen 2.artikuluan datoz zehatz mehatz zerrendatuta elkartearen helburuak.

Orain berriz, Behemendi Landa Garapen elkarteak, 2021eko maiatzaren 13an, “baliabide propio edo berezko” gisa izendatua izan dadila eskatu dio Usurbilgo Udalari.

Behemendi Landa Garapen elkarteak, hainbat lan egin ditu Usurbilgo Udalarentzat azken urteetan:

- Herri bideetako garbiketa eta desbroze lanak (bide bazterrak eta kunetak).
- Landa eremuko garraio zerbitzua, lehen Taxi-busa orain Bidez bide zerbitzua dena.
- Eskualdeko turismo plana gauzatu eta ekintzak antolatu. (bisita gidatuak)
- Landaguneko hirugarren adinekoren egoeraren azterketa.
- Urteroko nekazal plastikoen hondakinen bilketa.
- Artilearen bilketa koordinatu.
- Usurbilen dauden lur bankuko eremuen kudeaketa.
- Usurbilgo nekazari ekintzaileei laguntza eman.
- Espezie exotiko inbaditzaileen desagerrarazteko lanak koordinatu eta gauzatu. (Landare inbaditzaileak, listor asiaticoa etab...)
- Herriko hainbat azoketako beharrezko azpiegiturak utzi. (Karpak).



Usurbilgo Udala

- Udalerrian nekazal eremuan, banda zabalaren hedapena sustatu.
- Hondakinen tokiko tratamendurako ekimenak bultzatu, baserri konposta.
- Udalerriko bestelako nekazal eragileekin (erlegintza, Alkartasuna kooperatiba etab...) hainbat sustapen lan

Usurbilgo Udalak, Behemendi Landa Garapen Elkartearen bitartez, ezinbesteko diren hainbat udal zerbitzu kudeatzen ditu, eta aldi berean, landa eremuko hainbat sustapen lan egiten ditu.

Espedientea osatzen duten dokumentuen artean, 2020ko ekainaren 25eko data duen BSK Legal & Fiscal Asociados, SLPre txosten juridikoa dago jasota.

Bestalde, Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2021eko maiatzaren 25ean egindako txostenean Behemendik azken urteetan Usurbilgo Udalarentzat egindako lanak zerrendatzen dira; udal teknikariaren jakinarazten duenez, Behemendi Landa Garapen Elkartearen bitartez kudeatzen ditu Usurbilgo Udalak ezinbesteko diren hainbat udal zerbitzu, eta aldi berean, landa eremuko hainbat sustapen lan egiten ditu Elkarteak.

Udal idazkariak, Garazi Etxeberria San Miguel andereak, 2021eko ekainaren 8an eman du gaiaren inguruko lege txostena. Bertan, gaiaren azterketa juridikoa egin ostean, honako ondorioa biltzen du:

(...)

Txosten hau sinatzen duen honek ulertzen du berezko baliabide izateko bete beharreko baldintzak aztertuta, onargarri izan daitekeela interes adierazpena, edo behin behineko izendapena.

Hori bideratu ahal izateko, **baldintzatutako erabaki hartzea proposatzen da**, hau da: Behemendi berezko baliabide izendatzea, baldin eta Kontratuen Legeko 32. artikuluko baldintza guztiak betetzen baditu. Baldintza horiek Behemendik ziurtatu beharko dizkio Udalari; izan ere, momentu honetan, espedienteak elkarteak berak enkargatutako txosten juridikoa jasotzen da, baina ez da bestelako agiririk.

Bestalde, estatutuen aldaketa bideratu beharko litzateke, batetik lehenengo baldintza betetzeko beharrezko aldaketak txertatuz (zuzendaritza batzorderen osaketari dagokionez); eta bestetik estatutuek berezko baliabide izaera (eta horri lotutako baldintzak, SPKLko 32. artikuluan jasotzen denaren arabera) jaso behar dute.

(...)

Guzti hau ikusirik, Nekazaritza eta Ingurumena Batzordeak, 2021eko ekainaren 14an egindako bilkuran, Joxe Mari Iribar, Oxkar Santamaria eta Patxi Suárezen aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, proposatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Donostia-Bidasoako Landa Garapenerako Elkartea "Behemendi" udal honen berezko baliabide izendatzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako ondorioetarako.

BIGARRENA: Usurbilgo Udalak Behemendiri bere estatutuen 2. artikuluan jasotako helburuak betetzeko ekintzetara mugatzea udalaren berezko baliabide izaera.

HIRUGARRENA: Aipatutako erakundeari eskatzea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 32.4 artikuluan eskatzen diren betekizunak egiazta ditzan, baita estatutuetan egin beharrezko aldaketak bideratzeko eskatzea ere.

LAUGARRENA: Ebazpen hau "Behemendi" Donostia-Bidasoako Landa Garapenerako Elkarteari jakinaraztea, eta adieraztea izendapenak ez duela ondoriorik izango eskatutako egiaztapena egin arte."

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez onartu da.

5.- USURBILGO HAUR ESKOLA ZERBITZU-EMAKIDA KONTRATUA UDARREGI IKASTOLA IKE-RI ESLEITZEA.

Beñat Larrañagak puntu honetan ez du parte hartu, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legeko 23. artikulua baitan.

Itziar Basterrikak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu aurrekarietan jasotzen den moduan.

Batzarkideek, Hezkuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

"Espediente zkia: ID.05/2021-0046

Aurrekariak:

Udalbatza-Plenoak 2021eko martxoaren 25ean egindako ohiko bilkuran prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Usurbilgo Haur Eskola zerbitzu-emakidaz kontratatzeko lizitazioa martxan jarri zen, udal Kontratatzaile Plataforman argitaratuz.



Usurbilgo Udala

Eskaintzak aurkezteko epea barruan lizitatzailerik bakarrik aurkeztu da: Udarregi Ikastola IKE.

Alkatearen 2021eko ekainaren 7ko 2021/490 dekretuaren bidez, eskaintza ekonomiko onena egin duena dela zehaztu eta errekerimendua egin zitzaion, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean oinarri administratiboetan zehazten diren agiriak aurkeztu ditzan. Emandako epe barruan enpresak eskaturiko agiriak aurkeztu ditu.

Pertsonal eta Kontratazio Teknikariak esleipena egitearen aldeko txostena egin du.

Guzti hau ikusirik, Hezkuntza Batzordeak, 2021eko ekainaren 18an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Itziar Basterrika eta Patxi Suarezen aldeko botoekin eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, proposatutako irizpena kontutan hartuta, honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENA: Udarregi Ikastola IKE-ri esleitzea Usurbilgo Haur Eskola zerbitzu-emakida kontratua, honako prezio hauetan:

- 1.300 €/ikasleko/urteko, ikasleak 29 edo gutxiago badira.
- 1.275 €/ikasleko/urteko, ikasleak 30 - 33 bitartean (biak barne) badira.
- 1.250 €/ikasleko/urteko, ikasleak 34 - 36 bitartean (biak barne) badira.
- 1.225 €/ikasleko/urteko, ikasleak 37 - 39 bitartean (biak barne) badira.
- 1.200 €/ikasleko/urteko ikasleak 40 - 44 bitartean (biak barne) badira.
- 1.175 €/ikasleko/urteko, ikasleak 45 - 47 bitartean (biak barne) badira.
- 1.150 €/ikasleko/urteko, ikasleak 48 - 50 bitartean (biak barne) badira.
- 1.125 €/ikasleko/urteko, ikasleak 51 - 54 bitartean (biak barne) badira.
- 1.100 €/ikasleko/urteko, ikasleak 55 edo gehiago badira.

BIGARRENA: Kontratua burutu ahal izateko 2021eko irailaren 1etik abenduaren 31a arteko gastua 1.5200.227.326.00.04 partidaren kontura egitea (AD 118/2021).

HIRUGARRENA: Udarregi Ikastola IKE-ri dei egitea kontratua 2021eko uztailaren 5ean sinatzeko eta kontratua sinatu ondoren formalizazio hori udaleko Kontratatzailearen Profileen argitaratzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Udarregi Ikastola IKE-ri, Hezkuntza saila eta Kontu-hartzailetza sailari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.



Usurbilgo Udala

Beraz, gehiengoz onartu da.

6.- MOZIOA: TORTURAREN BIKTIMAK BABESTEKO NAZIOARTEKO EGUNA.

Mozioa diktaminatu gabe dagoenez, batzarkideek aho batez plenoan tratatzea erabaki dute.

Alkateak azaldu du Beñat Larrañagak EH Bilduk aurkeztu duen mozioa irakurriko duela eta ondoren EAJk aurkeztu duen osoko emendakina irakurriko dela. Bozketari dagokionez, lehenengo osoko emendakina bozkatuko dela eta aurrera ez bada ateratzen jatorrizko mozioa irakurriko dela zehaztu du.

Beñat Larrañagak EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa irakurri du:

“TORTURAREN BIKTIMAK BABESTEKO NAZIOARTEKO EGUNeko ERAKUNDE ADIERAZPENA

Ekainaren 26an, Nazio Batuek Torturaren Biktimak Babesteko Nazioarteko Eguna bultzatu zuten, António Guterres idazkari nagusiaren hitzekin bat: *“Torturatzailleen krimenak ez dira inola ere zigorgabe utzi behar, eta tortura ahalbidetzen duten sistemak eraldatu egin behar dira”*. Nazioarteko erakundeak gogorarazten du tortura Gizateriaren aurkako krimena dela, eta salatzen du “biktimaren nortasuna suntsitzen duela eta gizaki ororen berezko duintasuna mespretxatzen duela”.

Eusko Legebiltzarrak, 2019ko ekainaren 6an, egun hori ospatzearen aldeko jarrera hartu zuen, eta Eusko Jaurlaritzari torturaren biktima guztiak berariaz aitortzeko ekitaldia egin zezala eskatu zion, beste biktima batzuei egiten dizkien ekintzen antzeko parametroetan ulertuta.

Torturatutako pertsonen kolektiboak askotan adierazi du, biktimizazio bikoitza jasaten dutela biktimarioei omenaldia eta aitortpena egiten zaizkienean.

Testuinguru horretan, Udal honek torturaren biktimen eskaera kolektiboa babestu behar duela uste du, beste biktima batzuen parean onarpena izan dezaten, nahiz eta sufrimendu hori sistematikoki ezkutatu den eta erakundeek bertan behera utzi dituzten erreklamazioak.

Horregatik, Usurbilgo Udalbatzak hurrengo adosten du:

- Torturaren Biktimak Babesteko Nazioarteko Egunerako Nazio Batuek egindako deiarekin bat etorriz, torturak Euskal Herriko indarkeria politikoaren testuinguruan duen sakontasuna eta hedadura berariaz onartzen du, zalantzarik gabeko txostenek zenbatutako 5.000 kasu baino gehiago daudela onartu ere.
- Krimen horien zigorgabetasuna ez onartzera eta tortura ahalbidetzen duten sistemak (legeria eta auzitegi bereziak, torturaz erazutako testigantzetan oinarritutako zigorrak...) eraldatzera eta bertan behera uztera deitzen dugu.



Usurbilgo Udala

- Gorputz polizial desberdinen eskuetan tortura fisiko edo psikiko oso larriak jasan dituztenen abandonua eta ahanztura instituzionala salatzen du.
- Aitortza Instituzionala egiten dio haien sufrimenduari egia, justizia eta oroimena eskatuz, eta etorkizunean inoiz ez errepikatzeko neurriak hartu daitezzen.”

Jarraian, Josune Urkolak EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako osoko emendakina irakurri du:

“TORTURAREN BIKTIMEN NAZIOARTEKO EGUNEO ERAKUNDE ADIERAZPENA

Eusko Legebiltzarrak torturaren eta botere-abusuen biktimak aitortzeari buruz onartutako 69/2019 legez besteko proposamenarekin bat etorriz, Usurbilgo udalak honako hau

ERABAKITZEN DU

- 1.- Nazio Batuen Ekainaren 26an Torturaren Biktimen aldeko Nazioarteko Eguna ospatzeko ekimenarekin bat egitea.
- 2.- Oroitzapen horren helburua da biktima horiek gizartearen aurrean aitortzea, giza eskubideen urraketa larri horrek dakarren bidegabekeriagatik. Horrela, torturaren eta botere-abusuen biktimekiko beharrezkoa den aitorten instituzionala babesten dugu, haien sufrimenduari egia, memoria eta ordaina emateko beharrari balioa emanez, eta botere publiko demokratiko guztiei eskatzen diegu neurriak har ditzatela, etorkizunean inoiz errepikatuko ez direla bermatzeko.
- 3.- Jakinaraz bekie akordio hau Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari.”

Alkateak adierazi du jatorrizko mozioa ez onartzeko arrazoiak jakitea gustatuko litzaiokeela.

Josune Urkolak adierazi du bere garaian Eusko Legebiltzarrean alderdi guztiek onartutako testu bat dela eta ez dakiela zergatik eman behar zaion beste... iruditzen zaie orokorrean denak babesten dituela hemen. Garbi utzi nahi izan du beraiek torturaren aurka daudela, era guztietako torturaren aurka.

Beraiek aurkeztu duten testua alkateari aurkeztu ziola esan du eta beraiek ere ez dutela ulertzen zergatik ez duten onartzen.

Alkateak erantzun dio uste dutelako kontestua falta duen testu bat dela, nondik datorren, nola jasota dagoen, Torturaren Biktimen aldeko Nazioarteko Eguna zergatik den, zer ulertzen duten torturaz eta ez duela ere aipamenik egiten Euskal Herrian zenbat torturatu izan diren, errealitate hori ezkutatu egiten du eta beraien ustez errealitate hori agirian utzi behar da. Bestalde, orain arte torturatuak izan diren pertsonak ez dute jaso inolako errekonozimenturik eta horretan ere hutsegite bat egon dela uste dute, azken honen aipamenik ere ez dela jaso esan du.

Ez duela ukatuko dio EAJren testua torturatuak izan diren biktimak babestu eta errekonozitzeko testu bat dela, baina esan bezala uste dute gabezia batzuk, hutsune batzuk dituela eta kontestu bat falta duela.



Usurbilgo Udala

Patxi Suárez hitza hartu du eta honako testua irakurri du: “Ezer baino lehen torturaren biktima guztiekin bat egin nahiko nuke eta batez ere tortura gizateriaren aurkako krimenak direla-eta adierazpenean aipatzen den bezala. Bestalde, nik ere sentitzen dut pairatu behar izan duten biktimizazio bikoitza, askotan entzuten dugu zer gogorra den biktimizazio hori, nire alderditik adibidez. Kasu honetan, zergatik ez, niri iruditzen zait mespretxagarria ere biktimizazio bikoitz hori. Ez zait inporta biktimarioa, nire alderdikoa orain bada, edo nire alderdian parte hartzen bazuen lehen, ez zait inporta, mespretxagarria iruditzen zait modu berean.

Egia da poliziaren torturen biktimek lehen esandakoaz gain pairatu dutela abandonoa, auzitegietan baita ere, baina azpimarratu nahiko nuke lehenengo urratsak ematen ari direla.

Txosten hau, testuan aipatzen dena, oker ez badabil, Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak ere bultzatu du. Orduan, nik uste dut hori baloreari jarri behar dela.

Biktimen zenbakiari dagokionez, nik ez dut esan nahi ez direla 5.000, agian gehiago agian gutxiago dira, baina nik uste dut adierazpen instituzional batean jarri beharko ditugula ebazpen judizial batetik datozen datuak. Horregatik, besteak beste, ez dut parte hartzen adierazpenaren eduki osoarekin.

Eskertu nahiko nizuke, bai Agurtzaneri bai Josuneri, adostasuna lortzeko ahaleginak egitea. Gaur adostasuna lortzen ez badugu, alderdi guztion ardura da eta espero dut etorkizun labur batean adostasuna lortzea, bai gai honetan eta baita elkarbizitzarako garrantzitsuak diren beste gaietan ere.”

Alkateak esan dio egun hauetan mozio honen inguruko adostasuna lortzeko telefonoz aritu direla hizketan. Uste du Patxiren desadostasun nagusia edo jatorrizko mozioa ez onartzearen arrazoia, berak aipatu duen bezala, 5.000 kasuren aitortzan dagoela. Patxik aipatu duela dio ebazpen judizialek datozen datuak behar dituztela. Ez dakiela dio ikusi ote zuten atzo Jaurlaritzan bildu zen ebaluazio batzordea, baina aitortu ditu estatu indarkeriaren 35 biktima eta gaur Garak atera duen erreportaiaren irakurtzen egon dela esan du. Bertan esaten dela dio *“Me hicieron literalmente de todo, salí muy deteriorado, tanto que hasta el juez me preguntó, ¿qué te han hecho chaval? Pero me mandó a prisión sin investigar nada”*. Hau tortura kasuetan sistematikoa izan dela dio, behin eta berriz. Beraz, tamalez, torturen inguruko ebazpen judizial oso gutxi daudela esan du, inkomunikaziotik epaileen aurrera pasa, epaileek ikusi txikitutako pertsona bat zutela aurrean eta beste albo batetara begiratu dutelako guztiek, forenseak, epaileak, fiskalak...

Paco Etxeberria forenseak berak Nazioarteko parametroetan oinarritutako ikerketa bat egin duela Hego Euskal Herrian eta ikerketa horretatik atera direla 5.000 kasu horiek zehaztu du.

Elkarbizitzan urratsak egiten ari direla esan du, oinarritzko adostasunak badituztela, baina bistan dela dio oraindik adostasun zabalagoak behar dituztela eta batez ere torturatuek, zeren urte luzeetan, eta horixe da EH Bilduko mozioak dioena, biktimak izan dira.



Usurbilgo Udala

Penaz hartzen duela esan du zeren Usurbilen ere badituztela dio, eta ez gutxi, tortura jasan duten usurbildarrak.

Lehenengo, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozio alternatiboa bozkatu dute eta gehiengoz ez dute onartu.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Kontrako botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Beraz, ez da onartu gehiengoz.

Jarraian, EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa bozkatu dute eta gehiengoz onartu dute.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, gehiengoz onartu dute.

7.- MOZIOA: LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA.

Alkateak azpimarratu eta balioan jarri du hiru alderdien artean adostu duten mozioa.

Mozioa diktaminatu gabe dagoenez, batzarkideek aho batez tratatzea erabaki dute.

Mozioaren testua irakurri ondoren, batzarkideek aho batez honako testua onartu dute:

“LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Ekainak 28

52 urte igaro dira **Stonewallen** lesbiana, gay, transexual eta, batez ere trabestiak, poliziaren aldetik jasaten zituzten jazarpena eta xantaiaren aurrean erreboltatu zirenetik: data hori mugarri bihurtu zen LGTBI pertsonen borrokan. 10 urte beranduago, 1979ko ekainaren 10ean, polizia batek Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuen Errenteriako diskoteka



Usurbilgo Udala

batean, trabesti izateagatik. Ekainaren 28 horretan **LGTBI pertsonak eta kolektiboak Euskal Herriko kaleak hartzen dituzte** estreinako aldiz, euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzea aldarrikatuz.

Stonewalleko gertakarien geroztik ekainaren 28an **LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna** ospatzen da: borroka disidente luzea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko falta den guztia aldarrikatzeko eguna ere. Berriki, Basaurin Ekain Perrino gazteak jasandako eraso homofoboak erakusten du, zer nolako lana dugun oraindik egiteko, eskubide berberak dituen jendarte askea izateko, inor bere sexu-desioaren orientazioagatik edo genero-identitateagatik bazterketarik eta jazarpenik jasan ez dezan.

Usurbilgo udalak eskerrak eman nahi dizkie sexu-askapenaren aldeko borrokaren alde bizitza eta ahaleginak eman dituzten pertsona guztiei, gaur egun ere antolatu eta gizartea sentibilizatu, kontzientziatu eta eraldatzeko lana egiten jarraitzen baitute. Era berean gure mugetatik kanpo eta hemen isilik jasaten duten pertsona guztiak aitortu eta ahaldundu nahi ditu.

Urtebete baino gehiago igaro da pandemiak gure bizitzak gogor astindu zituenetik. Informazio eta datu askoren arabera badakigu jada konfinamenduak LGTBI pertsonen aurkako diskriminazio-maila handiagoak ekarri dituela; haien eskubideak bermatu beharrean, urratuak izan direla, zaugarritasun bereziko testuinguru batean. Are gehiago, gaur egun krisi sozioekonomiko larriak ate joka dugunean, gorroto-diskurtsoak eta erasoak areagotzen ari dira, eta LGTBI pertsona askoren bizi-baldintza orokorrak prekarizatzen eta okertzen ari dira, batez ere bereziki zaugarriak diren kolektiboak, hala nola trans pertsonak, egoera administratibo irregularrean daudenak, arrazializatuak, etab. Bereziki kezkarria da Trans pertsonen aurkako gorroto diskurtsoen igoera.

Pandemiak agerian utzi du eskubideetan egindako aurrerapenak, kolektiboak eta ekintzaileen urteetako borroka neketsuari esker lortu direnak, hauskorrak direla, eta oso erraza dela horiek galtzea eta atzera egitea. Orain, osasun-krisitik ateratzen ari garenean, "normaltasun" desiragarria itzultzearen diskurtsoak gailentzen ari dira: normaltasun horrek, ordena sozialean mendeko egoeran daudenentzat, bazterretan daudenentzat, baztertuta bizitzen jarraitzea esan nahi du, beren eskubideez gozatu gabe edo dituztenak galduta ere bai.

Krisi-une honetan, inoiz baino gehiago konprometitu behar gara, konpromisorik gabeko adierazpen hutsak baztertuz. Erakundeetatik pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko erantzukizuna dugu, eta bereziki zaindu behar dugu LGTBI bezalako kolektibo zaugarrienek eskubide horiek izan ditzaten. Argi dugu erne ibili behar dela sexu eta genero aniztasunaren aurkako sektore eta alderdi politiko jakin bazuen diskurtso eta planteamenduen gorakadaren aurrean inoiz baino beharrezkoagoa dela LGTBI kolektiboaren eskubideen aldeko borroka ikustaraztea, aitzakiarik gabe, politika eraldatzaileak eta baliabideak bermatu behar ditugu, gure udalerrri eta herrialdeetako LGTBI pertsonen beharrei eraginkortasunez erantzuteko: krisiaren ondorio negatiboak iraultzeko premia politikak eta sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik mendekotasunik eta hierarkiarik gabeko gizarte-eredurantz transitatzeko aukera emango diguten politika emantzipatzaileak, euskal jendarte errespetuzkoago, justuago, duinago eta askeago baterantz aurrera egiteko.



Usurbilgo Udala

Urtero bezala, ekainaren 28 honetan aitortu nahi dugu LGTBI kolektibo eta pertsona ugariaren borroka luze eta ordainezina Euskal Herrian: garai zail hauetan, pertsonen eta gure herriaren emantzipaziorako erreferente direla erakusten jarraitzen dute.

Era berean, Usurbilgo Udalak LGTBI pertsonen eskubideekin urteko egun guztietan duen konpromiso politikoa berretsi nahi dugu. Adierazpenetatik haratago, ordea, jakitun gara gure konpromisoa politika zehatzetan islatu behar dela, mugimendu feministako eta LGTBI mugimenduko ordezkari eta adituekin adostu beharreko politikak, hain zuzen ere.

Horregatik, Usurbilgo Udalak konpromisoa hartzen du honako hau egiteko:

- 1) LGTBI pertsonen egoeraren eta beharren diagnostikoa egiteko, pandemiaren krisiaren eraginaren ondorioz, beste erakunde, kolektibo eta gizarte-eragile batzuekin koordinatuta.
- 2) Egindako diagnostikoari erantzungo dion plan bat osatzeko edota neurriak hartzeko.
- 3) LGTBI pertsonen aurkako indarkeriaren aurrean erakundeen koordinazio, arreta eta erantzun publikorako protokoloak diseinatzeko eta abian jartzeko.
- 4) LGTBI pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatuzeko, hala nola: administrazio-formularioetan aldaketak egitea binarismoa gainditzeko, aldagelak eta komunak egokitzea instalazio publikoetan, igerileku publikoen araudiak eta abar.
- 5) LGTBI biztanleriaren aurkako gorroto-diskurtsoak identifikatzeko mekanismoak ezartzeko (behatokiak, aldizkako azterketa, etab.), eta hainbat eremutan (hezkuntza, kultura, komunikazioa, enpresa eta gizartea, oro har) diskurtso horiei eta jazarpen eta eraso LGTBI fobikoei aurre egiteko ekintzak bultzatzen jarraitzeko (protokoloak, araudi espezifikoak, etab.).
- 6) Haurrak eta nerabe transexualak babesteko neurriak ezartzeko, bereziki trans errealitatea barne hartzen duten hezkidetza-prozesuak, gizarte- eta hezkuntza-eragileekin.
- 7) Sexu eta genero disidentziaren gaineko prestakuntza-prozesuak bultzatzeko, langile publiko eta politikoen artean, bereziki, jendeari arreta emateko, eta gizarte- eta hezkuntza-esparrurako.
- 8) Sentsibilizazio-kanpaina feministak egiteko, egungo testuinguru sozialera egokituta, epe labur, ertain eta luzean, sexu-genero dikotomiari, heteronormatibitateari, sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen adierazpen-aniztasunari eta eremu desberdinetan LGTBI pertsonenganako indarkeriaren eta diskriminazioaren adierazpen eta forma anitzei buruzko kontzientzia kritikoa hartzea errazteko.

Herritarrei dei egiten diegu LGTBI mugimenduak eta mugimendu feministak gure herri eta hirietan deitutako ekintzetan parte har dezaten.

Denontzako askea eta bidezkoa den Usurbil baten alde!"

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, aho batez onartu dute.

8.- MOZIOA: ZUBIETAKO AUZOKIDEEN ARTEKO ELKARBIZITZA.

Mahai gainean utzi dute.

9.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:50etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.